BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4361

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 8koa, Osasun Publikoko zuzendariarena, Madrilgo Diversey España, S.L.k 2012ko apirilean eta maiatzean emandako maila gaituko ikastaroa gainditu duten ikasleei ingurumenerako eta elikagaien industriarako tratamendu bioziden maila gaituko aplikatzaile txartela banatzeko baimena ematen duena.

Ikusi da Madrilgo Diversey España, S.L. zentroak bidali duen dokumentazioa, 2012ko apirilean eta maiatzean ingurumenerako eta elikagaien industriarako tratamendu bioziden aplikatzaileentzat emandako maila gaituko ikastaroaren garapenari eta ikasleek ateratako probetxuari buruzkoa.

Kontuan hartu da Osasun Publikoko Zuzendaritzak 2010eko ekainaren 3ko Ebazpenaren bidez baimena eman ziola Diversey España, S.L.ri maila gaituko ikastaroak emateko. Ebazpen hori, hain zuzen ere, abenduaren 21eko 257/2004 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko eman zen (257/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortzen duena). Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumenerako eta elikagaien industriarako tratamendu bioziden aplikatzaile txartela –maila gaitukoa–, ebazpen honen eranskin modura doan zerrendako pertsonei emateko agintzea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osasuneko sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 8a.

Osasun Publikoko zuzendaria,
MERCEDES ESTÉBANEZ CARRILLO.

ERANSKINA

INGURUMENERAKO ETA ELIKAGAIEN INDUSTRIARAKO TRATAMENDU BIOZIDEN APLIKATZAILE TXARTELA (MAILA GAITUA) ESKURATZEKO BAIMENA EMAN ZAIENEN ZERRENDA

Izena	1. abizena	2. abizena	NAN	Txartel-zenbakia
Jose ramón	Barañano	Cabezas	14590026E	0071/2012
Alejandro	Del olmo	Doval	22754513S	0072/2012
Oscar	Fernandez	Ojeda	20187624H	0073/2012
Restituto	Gómez	Sasiain	16034390D	0074/2012
Aitor	Moral	Hernández	20178809N	0075/2012
José miguel	Pérez	Tejada	14254187Y	0076/2012
Evaristo	Prieto	Villoria	16034938M	0077/2012
Iker Macario	Vilda	Fuente	16056409V	0078/2012